

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

168/2025 Erabakia, apirilaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Aitor Mikel Uriarte Unzalu Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoaren zuzendari kudeatzaile izendatzea

Uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren bidez onartutako Arabako Foru Suhiltzaileak (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoaren estatutuetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, erakunde autonomoa atxikita dagoen saileko titularrak proposatuta eta administrazio kontseiluari entzunda, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoko zuzendari kudeatzailea izendatzea eta kargutik kentzea.

Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzako gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailetako diputatuen proposamenak hala eskatuta. Izendapen edo kargutik kentze horiek erabakian bertan ezartzen den egunetik aurrera izango dituzte ondorioak edo, beren-beregi zehaztu ezean, ALHAOn argitaratzen diren egunetik aurrera.

Horregatik, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren administrazio kontseiluari entzun ondoren, eta Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Aitor Mikel Uriarte Unzalu Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoaren zuzendari-kudeatzaile izendatzea.

Bigarrena. Erabaki honek 2025eko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua

IÑAKI GURTUBAI ARTETXE